

Encarna Ibabe Uribeetxebarria

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1921-2010)*

Aurkibidea

Biografia



Apotzaga elizateko Altunena baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama auzo bereko Zarratziki baserrikoa. Elkarrizketa egin zitzaionean, 81 urte zituen. Auzo bereko Gaztañadui baserrira ezkondu zen; Maximo Lezeta da bere gizona.

Zintak

ESK-001

- **Proiektua:** Leintz bailarako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Data:** 2002-10-31
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ESK-002

- **Proiektua:** Leintz bailarako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Data:** 2002-10-31
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Ardiak menditik baserrira

- **Erref:** ESK-001/001
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserrira » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardiak menditik noiz jaisten zituzten.

Transkripzioa

- Hillan hamarra ezkerre behera.
- Etxera [ekarten gittuen].
- Bueno, egualdixan gorabeheran be bai, ezta?
- Bai, bai. Mendira lehenao ez gittuen eruten. Nik hamabi bat urte edo, ze eukiko nauan. Bestela, lehen hemen ibiltten [gittun] ardixek. Hamabi bat urte edo holakon [batekin] mendire. Ta batzen be... batu-ta be lehenao hementxe eitten zien. Bai. Etxien be ez, hor goixen batu, hemen basuen batu. Goixien egunsentixen fan ta batzen gittuen ardixek.
- Jeixteko edo?
- Jexteko.
- Bai, goixien ta illunkaran.

2. Gariaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ESK-001/004

- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:03:14. **Bukatu:** 00:07:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Gariaren inguruko lanak: noiz erein; heldu; ebagi... Lasto batzea, illundutakoan egiten zen. Azaoak lotzen zituzten bitartean, arrosarioa errezatzen zuten. Erabiltzen ziren tresnak. Errotak. Ogia.</p>

Transkripzioa

- Garixe? Ba, garixe ointxe eitten zan. Gari-eitten, ointxe Domu Santu ostien gari-eiñian, garixa eraitten. Ta heldu, [barrez], eitten zien, hor, San Pedro edo San Kristobal, hor heltzen zien. Ta heltzen zienien, igetaixakin ebaten zien gari danak. Igeteixakin danak. Aspeltxue, holan, aspeltxue eitten zan ta ha aspela lotzen zan gero, egunez eitten zana, gabien, illunkaran lotu. Ha aspela lotzen zan, hartu sei bat lasto ta hareaz, beraaz lotzen zan. Bai. Ta ha lotzen illunkaran. Egunez eitten zan lana illunkaran...
 - Akabau bihar...
 - ...harek lotzen. Illundutakuen, ez, illunkaran. Illundutakuen ha lasto-lotzen. Bestela haixiek-edo zabaldu eitten euen aspela. Holako aspel bat izeten zan. Errosarixua erreza! Lastue lotzen ta errosarixua erreza eitten zan. Bai.
 - Gabeko lana, orduan, hori.
 - E?
 - Hori gabeko lana, gabian eitteko.
 - Gabien. Egunez ebaten zan garixe gabien lotu. Ta lotzen, errosarixua erreza. Bai.
 - Illundu aurretik izango zan, ala?
 - E?
 - Illundu aurretik izango zan...
 - Illundu aurretik ebaten igitaixaz.
 - A! Ta gero?
 - Illundutakuen, illundutakuen eitten zan lasto-lotzioi. Bai. Errosarixua erreza. Ta, ba, gero horreik danok einddekuen, solue [gertaketan] zanien, edo ebaten akabaten zanien, ba, metak, metie eitten zan. Metie gure bazan haundixaue ein, erredondo haundixaua hartu, edo txikitxuaua hartu. Ta hasierie eitten jakon hiru aspeleaz. Holan. Hiru aspel ipiñi ta politto-politto, politto-politto. Ba, gura baeuen meta haundixa ein, ba, korro haundixaue. Baiñe txikiña [euan]. Ta politto-politto, politto-politto, gora puntazorrotz, holan. Urik ez zan sartzen, ez zien bustitten metie. [Ez, ez zan han metaik bustitten]. Bai. Ta gero, barrez, larraiñera, hona, larraiñera. Hemen hau... hau larraiña izeten zan. Honi larraiña esaten [gutson]. Bai. Hor, larraiñera. Trillua, behixen edo idixen atzien trillua ifiñi... Trillua izeten zan, ba, ixa honen zabalerie edo, trillu... metro bi edo zeoze zan, holako [untza...] zer batzuk be eukitzen zittuen ebateko zera, garixa, ta larraiñian. Zabaldu ta... zerien, gaiñien euenak kaldarie ta akulue ganauek aida eitteko. Bai. Ta txixe ta kaka eitten dauenien, kaldaria hartu ta holan. Buelta, e? Gaiñian azala eitten jakonian, buelta emun. Sardiaz buelta emun. Ta dana [kargaketan] zanien, akabo; lastua kamarara ta garixe hona, eskiñan batera. Ta garixe garbiketake, [... eta bixok euki geun],

denpora askuen euki geuen onenien, denpora askuen egon zan garixa garbiketakue.

- Makiñie?

- Bai. Baiña [...] traba eingo euen ta kenduta eukiko auen.

- Kamaran badao.

- Kamaran?

- Bai. Zera, hola, helduleku bikin, holako zer haundi bat.

- Haize-errotia?

- Holan eraitten jakon ta haretxeaz garbiketan zien garixa-ta. Garbittu, ta gero errotara. Errotara gero. Elorretara faten [gitzen]. Elorretara faten [gitzen].

- Eskoitzara?

- Bai. Ta, ba, urune ekarten geuen handik eta, ba, gero laba-sua [ein]; astien-astien laba-sue. Ogi erredonduek. Ta [...zenbat], zenbat ogi izengo zien, dozenan bat ogi ta artue be bai. Artue be, lau bat arto hareaz batera eitten zien. Lau bat arto erretzen zien. Artua ta esnia [erateko] edo morokille edo gura dana. Arto-urune edo be bai, hareaz batera.

3. Artoaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ESK-001/005
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:07:54. **Bukatu:** 00:10:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Artoa noiz ereiten zen. Laietan egiten zuten. Arto-zuriketa. Errota kontuak. Artoa nola jaten zuten.</p>

4. Janariaren inguruko kontuak

- **Erref:** ESK-001/006
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:10:22. **Bukatu:** 00:11:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Janariaren inguruko kontuak: babak eta urdaia ia egunero jaten zuten.

5. Gaztaina sasoia

- **Erref:** ESK-001/007
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:11:13. **Bukatu:** 00:15:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Gaztaina sasoia noiz izaten zen. Haga erabiltzen zuten "moskolak" zuhaitzetik botatzeko. Burdian otzarak kargatu eta baserrira eramaten zituzten. Gaztaina-ganbara. Gaztaina egosiak; zartaginean erreta.

6. Baserri-jabe edo errenteroak

- **Erref:** ESK-001/008
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:15:19. **Bukatu:** 00:19:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Baserriaren egitura. Errentero izatearen inguruko kontuak. Etxe-jabeari kapoiak, arrautzak, gari burdikadak eman behar izaten zizkioten. Ugazabaren eta errenteroen arteko harremana herrikoren baten bitartez.

7. Ira-batzera basora

- **Erref:** ESK-001/009
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:19:51. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Ira-batzera basora. Artoa ereiteko, laietan egiten zuten. Golde txikia. Golde handia, geroago etorritakoa. Idiekin lan egiten zen soroan. Garia igitaiarekin ebatzen zen. Laietan egiteko auzolana. Baserriko tresnak.</p>

8. Basora lanera

- **Erref:** ESK-001/010
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:25:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Baserriko bizimodua urte sasoiaren arabera. Basora lanera batzuk; etxean

gelditzen zirenak, lapikoarekin basora. Harrizko plater bakarra guztien erdian ipini eta bertatik jaten zuten. Uraren inguruko kontuak.</p>

Transkripzioa

- Ta oin sasoi hontan, lehen ez dot esan, oin sasoi hontan etxien geldiketan zan lapikuai kaso eitten. Lapikue, lapiko gorri bat. Ifintzen zan bi trongo suten ta babak egosten. Ta, ba, hemen etxe inguruen. Ta etxe inguruen geldiketan zanak eguerdixen eruten euen bazkaixa basora. Basuen [...zelan] gehixenien, ba, haintxe, basuen bazkaittarako. Bazkaixe, lanien gabitzen lekuen. Bai. Edo gaztaiña-batzen edo ira-ebaten gabitzen lekuen. Ta lapiko haundixe egoten zan sutonduen. Ta oin bakotxak bere platuek; orduen ez. Orduen plato... holako plato harrizko bat izeten zan, ta mahaixen erdi-erdixen ifini ta handik jaten geuen danok batera; ez oingo modun bakotxak bere platuetan. Holako harrizko zer bat izeten zan, ta hara bota babok ta hala jaten zien. Ta basora, ba, egosten dauen bertan lapikuen erun be. Gero platuoi atara. Han be holaxe basuen be.

- Han rapido ez zabillena...

- E?

- Rapido ez zabillena gosiek geratuko zan, ez?

- Ez dakit, ba. Hori zera izeten zan. Kustiñue: plato batetik jaten zan. [Esan gura dot], platoik-eta ezauketan, platoik-eta holan ezauketan. Urik be... Urik be ez euen. Oingo modoko... Oingo moduen ontzixek garbiketako urik be... urik be baeuen, ba? Ta ure be, ure erateko be, handixik eruten zan. Oin endreauta dao, baiñe han itturrix e darra egoten zan han zerien, pagopien, gure pagopien. Ure, itturriko ure --ardaurik ez zan izeten orduen be--, itturriko ure, umiek, neskatilla-mutikuek etorten zien tanborra joiez. Handixik eruten euen eguerdixen zera... ure erateko bazkaixaz batera. Bai. Ta gero ifini zien. Oin ifinitta dauz tuberixan-ta urok beste modo baten ifinitta dauz, baiña...

9. Baserriko lana emakume eta umeentzat

- **Erref:** ESK-001/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:25:38. **Bukatu:** 00:26:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Baserrian lana ugari ume-umetatik. Ardia jezten zenbat urterekin ikasi zuen. Amak gazta egiten zuen eta Arrasatera joaten zen saltzera. Etxe jabeak, errenteroak.

Transkripzioa

- Lan asko eitten zan gero baserrixan, e! Lan asko. Asko lana, e!

- Txikittatik gaiñera.

- Bueno! Nik ardixek batzen ikesiko nauen zortzi urte baiño lehenao! Ikesiko ez neuen, ba? Bai, bai. Ta ardixek batu goixen, e! Etxien-ta ez; han goixen. Ta handik ekarten zan esnie gaztaie eitteko. Amak eitten euen gaztaie. Ta lehen esan dodana, gaztaitxuokin, arrautzakin Mondraura faten zan astuaz. Honek maiorazkuok-eta hainbeste ez, honek ez euen hainbeste

biheleku eukitten. Honek [...]. Honek erreterue eukitte euen orduen, ta harek... Ez dakik? Zelan gertatzen zan. Lehen esan [dotena]: neskazarren modokoik. Holako [...] edo zer izengo zien.

- Ez nakixen nik holakoik.
- Bai. Maiorazko etxie izan edo erreterero izan diferentia izango zan, ezta?
- Onbre! Izengo ez zan, ba? Errentie pagau edo [iñon] erreterue... Errentie eukiko euen.

10. Umetan morroi

- **Erref:** ESK-001/012
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:26:48. **Bukatu:** 00:27:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Lantegi gutxi zeuden oraingo aldean. Baserritik kanpo lanera irten behar zirenean, gehienetan morroi joaten ziren.

Transkripzioa

- Orduen kria be faten zan, ezta?
- E?
- Kria. Esan gura dot...
- Ba, familiak be ez zauken indderrik orduen. Oingo... Orduen fabrikaik Eskoriatzan be lehenengo Zubizarreta ta Aretxabaletan be Arruena edo... Ez zauen, ez zauen industriaik, ez zauen industriaik, ta kria-ta. Batzuk, baten batzuk, baita Ameriketara be esaten zaben ta. Bilbora be esaten zaben faten ziela Somorrostrora miñatara-edo lanien. Ta, ba, norabaittera. Hemen, hola, fabrikaik ez zauen, industriaik edo, oin dauen moduen...

11. Erljioaren eragina familian

- **Erref:** ESK-001/013
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:27:31. **Bukatu:** 00:28:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Seme-alaba ugari baserrietan. Sexu-harremanetan tranpak egitea bekatua zen.</p>

Transkripzioa

- Seme-alabak be ekarri eitten gittuen, tranpak eittie pekatu zan ta. Zuei ez dakit zela [...], baiña tranpak eittie pekatu zan ta.
- Bihar be bai lanerako baserrixan, ez?
- Bai, [...]. Baserrixan dirurik ez zan izeten, baiña lana, lana toketan zan. Bai. Famelixek... Aberatsak libre eukiko euen orduen be. Orduen aberatsak

ez euen larrei eukitten. Pobriek... Pobriei ekarri ereitten eutsen [pekatuek...]. Bai. Famelixa haundixek. Bai, tranpaik-eta ezin [...ein], pekatu mortala zien horrek, ta [...] tranpaik eitteik eta. Oin ez dakit nora fan dien pekatuok. Horrek gauzok oin beste modu baten ikusten dittut neuk. Ez dakit zela dien. Beste modu baten ikusi eitten dittut neuk.

12. Erljioaren eragina hezkuntzan

- **Erref:** ESK-001/014
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:28:28. **Bukatu:** 00:29:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Erljioak indar handia zuen garai batean. Dotrina ikasteak garrantzi izugarria; eskolako gaiak ikastea baino garrantzi handiagoa.

Transkripzioa

- Lehen elixiek be inddarra gehixao edo...
- Elixiek, religiñuek, oingo poliziek eta guardia zibillek baiño errespeto gehixao eukien. Asko be bai! Enee! Izan be, orduen polizie biherrik ez auen ertzainik biharrik. Religiñuek, lehen esan douna, dana pekatu zan, dana... lehen. Bai, bai. Baiña hor ez dakit edo jangoikue edo bestie zein dauen... Oin horreik gauzok diferente ikusten dittut. Ez dakit, hola...
- Asko kanbixau da, ez?
- E?
- Garai hartatik hona gauza asko kanbixau da.
- Kanbixue? Gure denporan aiñako modoko kanbixue... Oin beste modo baterako be ingo dabe hemen kanbixue beste postura batera, baiña hor gauza hortan... Kanbixue? Bueno! Kanbixoa haundixe!
- Lehen dotriñie-ta be ikesi ein biher izeten zan, ezta?
- Eskolaik erakutsi be ez! Dotriña? Goxien mezie ta atsaldien be mutikuak erresarixuetara ta gero dotriñara. Dotriñan, sankristeixia edo [orduan] esaten [euen], han, preguntiek eitten euen. Ta errosarixua errezatzen doun ta horreik danok preguntaten zittuen abadiak.

13. Eskola gutxi ikasitakoak

- **Erref:** ESK-001/016
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:30:04. **Bukatu:** 00:31:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolaren inguruko kontuak. Aitak zerbait ikasi zuen baina amak ez zuen eskolarik bat ere ez. Ezkondu artean neskame ibilitakoa zen ama.

Transkripzioa

- Bai, eskolie... Eskolaik ez auen. Gure amak bape ez zakixen eskolaik, bapez. Ta [erderaz] be ez, bapez. Lana ikesi auen lehen... Bera zaharrena [be] ta kriada urten ta ezkondu artien, ba, kriada. Ta gero, ba, honaxe etorri ta akabo. Ez erderaz, ta ez eskolaik ta ezebe ez zakixen. Aittek apur bat bai, baiña amak ez zakixen bape be.
- Kriada kanpuen ibili zan edo...?
- E?
- Nun egon zan kriada?
- [Aroztegin] egon zan.
- A! [Aroztegin] egon zan, e?
- [Aroztegin]. Lehen esan dotena, maiorazkotxuak [Aroztegin] [be] beste hainbeste, lehen esan doune, erreterue be bai, ta [honenak] eta horreik diferente. Erreteruek ta horreik diferente. [Aroztegin] egon zan kriada ta handik hona ezkondu zan. Ta ez zakixen erderaz ta euskeraz ta ezebez. Bueno, euskeraz [...] erderaz, ta leiduten ta ezebe ez zakixen. Bapez baiña, e! Bapez.

14. Erljioaren lehentasuna

- **Erref:** ESK-001/017
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:31:04. **Bukatu:** 00:32:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Eskola kontuak. Auzo-eskola. Maisuen izenak. Eskola gutxi ikasi zuten; dotrina ikasteari garrantzi gehiago ematen zitzaion. Mezara egunero.</p>

Transkripzioa

- Zueik eskolara hemen auzuen fan zitzien?
- Hemen apurtxo bat.
- Apur bat ein zabien hemen, auzuan bertan?
- Bai.
- Bai, Cipriana eta Zacarias-eta zien, ta ni asko... ni ez nitzen asko fan. Nik ez dakit ardi-zain edo zetan ibiltzen nitzen. Ni ez nitzen asko jua, ta haik emuten euen eskola apur bat be, baiña gero ekin zan jentie kalera ta hortik, hemendik, hau ta... Baiña han eskola modukue, eskola modukue.
- Marianistetara be fan zien gero mutikuek.
- Bai. Gero, gero ekin zan kalera-ta ekin zan, baiña hemen, lehenengokuen, eskolie modukue bai. Ta jo eitten zittuen, baiña... [...] makillie luzie, ta [...] eruen-ta eitten eutsen ta jo eitten euen, baiña [...]. Ez, eskolaik ez zan, dotriñie. Dotriñie. Eskolaik ez.
- Klaro, lehenengo etxeko lanak zien, ta gero eskolie. Ez? Lehenengo, etxekuek. Lehenengo lanak ein biher, ta gero, ba, astixe baeuen iguel, ba...
- Bai. Mezetara ta atsaldien errosarixotara. Mezetara, mezetara-ta faten da noiz edo noiz]. [...] ta neskattilla-mutikuei preguntiek eitten eutsien dotriñienak eta...

15. Erlijioaren eragina bizitzaren ikuspegian

- **Erref:** ESK-001/018
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:32:26. **Bukatu:** 00:35:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Meza egunero. Abadea auzoan bertan. Umetan ez horrenbeste, baina zahartzaroan baserritar asko egunero mezara. Domekan sermoia pulpitutik; infernua eta zerua.</p>

Transkripzioa

- Mezie ze ordutan izeten zan? Goxien gox edo zela?
- Meza kontuek ez dakit zela egoten zan orduen.
- Bueno, egunero, ba... Egunero egoten zan.
- Egunero izeten zan? Egunero mezia?
- Bai, klaro, bertan egoten zan abadie. Apotzan Apotzagakue. Pentsaizu, [Usuiten]-ta bauezen etxiek, baeuezen auzuek, igual, hamar etxe baiño gehixao ez aukenak ta haretzek be abadie eukien orduen.
- Abadie, abadie...
- Ta egunero mezie.
- ... ta sankristaua. Kanpaiek joteko, sankristaua be bai.
- Eta gero mezetara faten zien, ba, zaharrenak. Zahartu ezkeru faten zan egunero be. Zure aittejaune, aittejaune... Felizianon aitte egunero faten zan. Eta Arruako Jose be bai, baiña [zahartikuen], e! [Zahartikuen]. Gaztetxuau zanian lana be ein biher zan, ta hil be, hilltie be, urrin ikusten zan eta ez zan faten. Baiña, gero, zahartu ezkeru... Orduen... orduen egunero, igual, mezetara. Bai. Zuen biz-aittejaune egunero faten zan zahartu zanian eta Arruakue, zerekue be bai, [...nekue] be bai. Eta baeuen jentie egunero faten zana.
- Mezie, ta domekatan sermoia formala, [hara], pulpittura igota infernue ta zerue [be erakutsi]. Dana, bateko infernue, infernue sutan. Pekatu... orduen bilddur ikeragarrixa [egoten zan...].
- Infernua ikusi eingo zaiuen zuek...
- Ikusi, ikusi be eitten zan [...] infernue, infernue ta zerue. Lehen esan dodana: errespeto gehixao goardia zibillek eta horreik baiño religiñuek. Jaiero beste lanik ez [...] abadien, estudixauta faten zan pulpittora, ta sermoia ein barik ez san sekula [geldittuko]. Bai, sermoia, infernue ta zerue. Oin infernue ez da larrei... ez da [itten]. Zerua-ta esaten da apur bat, baiña infernue ez dotset entzuten neuk hainbesteraño oin infernue. Ez dakit, ba, zela izengo dien. Nik ez dot entediduten horreik gauzok, baiña infernue ta zerue dauzen nok daki, nok? Aitta Santuek badaki? Dauzen, nun dauen infernue edo zerue ta horreik nok daki?
- Batek daki...
- Erakutsi geuri bai, baiña ez dakit, ez dakit. Neuk... honezkero geuri erakutsi oskuena segiduten goiez ta zueik, zueik administrau biherko dozue.
- [Españian] zeri segiduten dotsie, meziai edo abade [...]?
- Ya, ya, ya...z eatik faten...
- Ez dakit [ze] sinistute faten dien, e?
- Ya. Bueno, hor topau ein biher da bakotxan gustue, ezta?

- Hoixe.
- [...] bakotxai...
- Gura dana, gura dana... Nik erakusten [ostena] errezetan dot elixara fanda, ta gura dana eittia dauka.

16. Baserritarren harremana abadeekin

- **Erref:** ESK-001/019
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:35:46. **Bukatu:** 00:38:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Hamarrenak eta primiziak abadeei. Baserri batzuetan dirurik ez eta hildakoan eklizkizuna egiteko ere arazoak.

Transkripzioa

- Ta lehen elixiai ta emuten jakon...
- Koño! Lehen esan dou uezabai, zera, erreterero, garixek-eta esan dou...
- Hamarrenak eta primiziak esaten jaten. [...]
- Abadiak [...]
- Eta egoten zien kasuek, igual, jentie orduen pobrie auen, ta ez auenak pagetan ningunua aukien enterraixua-ta eitteko be orduan, e? Kasu batzuk suertau zien.
- Zer da hori "ningunu"-ori?
- Ba, zuk ez dutsezu pagetan elixiei zeuri perteneziduten jatzune eta, ba, enterraixua eitteko be pegak ifini.
- Bai, pegak ipini.
- Bai. Ez zien... Iñobe ez zan geldittu ein barik, baiñe bai, euren [...] ipintzen auen.
- Errentak pagaten ez baotson, enterrazixuak ein be ez igual gero!
- Amenazua, ez?
- Horixe! Bai.
- Onbre, hemen defendiduten zien abadiak. Ba, horrek hamarrenok hamar [erdi...] hillien besterik ez zan, e! Baiñe asko zan orduen, e!
- Garixe ta artue...
- [Orduen be ez auken].
- Garixe ta artue [...] abadei.
- Eta, gaiñera, gero hori errezetan jakien, Aittegurie bat meza ostien papeleti esaten auen. Eta han etxe bakotxak auken gure beste, bere aitte, auttejaune edo gure dauenak, ta gero harena be eruten zan beste anega erdi bakotxena. Ba, [ondikoz ta betikoz], ba, holakotxe gauzakin abadiak be abaeratsak [zauzen hemen].
- Aberatsak ez zauzen, baiña...
- Baiñe...
- Garoik eta artoik erein barik etxien nahikue euken, behintzat!
- Klaro, hori da.
- Abadiak geuk manteniduten gittuen ta sakristaue be bai, ta [...].
- Hamarrenak, eta bestia ze esan dozu?
- Premiza edo...
- Bai, hola esaten zan. Hori esaten dau... Eske oin ez dia [...]. Jangoikuan

legeko mandamentuek dia hamar eta ama eliza santuarenak die bost. Eta han esaten dau: "Hamarrenak eta premiziak elixari pagatzea". Han hola saten da. Eta, ba, ez zan asko, baiñe bueno. Ez zauenak sinisketan be baeuezen orduan be, jentie ekindda euen, ta bestekaldeti, ba, ezin auen [...].

17. Erlijioaren garrantzia

- **Erref:** ESK-001/020
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:38:31. **Bukatu:** 00:40:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Jaunartzea egin ahal izateko dotrinaren inguruko galderak ongi erantzun behar abadearen txartela jasotzeko. Ezkondu ahal izateko ere abadearen galderak erantzun beharra.</p>

18. Gaztaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ESK-001/021
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:40:06. **Bukatu:** 00:43:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardiak mendira nora eramaten zituzten. Gazta egitearen inguruko kontuak. Gatzaren gazura txerriei ematen zitzaien.

19. Txerriak nola hazi

- **Erref:** ESK-001/022
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:43:31. **Bukatu:** 00:45:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Txerriak txerritegian izaten zituzten. Txerriak haztearen inguruko azalpenak.

20. Ardiaren garrantzia familiaren ekonomiarentzat

- **Erref:** ESK-001/023
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:45:08. **Bukatu:** 00:47:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardiekin ateratzen zen irabazia. Ardi-txakurrik ez. Artzain ibiltzearen inguruko kontuak.

21. Baserriko bizimoduaren aldaketa

- **Erref:** ESK-001/024
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:47:37. **Bukatu:** 00:48:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrien inguruko soroak, zelaia... hesiekin itxita. Baserriko bizimodua asko aldatu da.

22. Ardiaren garrantzia familiaren ekonomiarentzat

- **Erref:** ESK-001/025
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:48:56. **Bukatu:** 00:51:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lehen ardia ondo aprobetxatzen zen: esnea, ilea, bildotsak... Artilea koltxoiak egiteko erabiltzen zen. Oiloak baserrian libre ibiltzen ziren.

23. Baserriaren egitura

- **Erref:** ESK-001/026
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:51:26. **Bukatu:** 00:52:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Baserriaren egitura. Ate handi bat zegoen lehenago.

24. Oiloen inguruko azalpenak

- **Erref:** ESK-001/027
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:52:13. **Bukatu:** 00:53:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oiloak eta txitak etxean hazten zituzten. Oiloa lokatu eta sasi artean arrautzak ipintzen zituen.

25. Ura eramateko ontziak

- **Erref:** ESK-001/028
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:53:47. **Bukatu:** 00:54:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ura karriatzeko ontziak. Pitxerra eta "edarra".

26. Arropak garbitzeko teknika

- **Erref:** ESK-001/029
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:56:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Arropak garbitzeari, "pujetie". Barrika batean sutako-hautsa botatzen zen eta ur beroarekin arropak garbitzen ziren. "Lexipotue".

27. Lihoaren inguruko lanak

- **Erref:** ESK-001/030
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:56:02. **Bukatu:** 00:58:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Lihoaren inguruko lanak. Lihoa (linua) beratzen edukitzen zen osin batean. Sikatutakoan, kardatu egiten zen "drangan". Ehulea Eskoriatzan.

28. Lihoarekin egindako arropa

- **Erref:** ESK-001/031
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:58:54. **Bukatu:** 00:59:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lihoarekin (linuarekin) egindako izarak oso latzak izaten ziren.

29. Artilea, lihoa (linua)

- **Erref:** ESK-001/032
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:59:36. **Bukatu:** 01:01:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Artilearekin galtzak egiten zituzten. Lihoarekin haria nola egiten zen.

30. Umetako jolasa: "banderaka"; Garizuman txirikilarekin

- **Erref:** ESK-001/033
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 01:01:05. **Bukatu:** 01:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. Banderaka: umeak bi taldetan banatuta eta erdian makila bat trapu batekin. Garizuma denboran txirikilarekin jolasten zuten.</p>
<p>

31. Umetako jolasak: "kakatorreka", "pote-poteka"

- **Erref:** ESK-001/034
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:05:00. **Bukatu:** 01:06:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak: kakatorreka; pote-poteka.</p>

32. Umetako jolasak: tortoloska, sokasaltoka

- **Erref:** ESK-001/035
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 01:06:25. **Bukatu:** 01:07:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. Neskak eta mutilak banatuta. Tortoloska, sokasaltoka.</p>

33. Umetako jolasa: "txantxixuske" edo txingor gainean

- **Erref:** ESK-001/036
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 01:07:22. **Bukatu:** 01:10:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. "Txantxixuske" edo txingor gainean.</p>

34. Gaztainadiak; toponimia. Gaztainaren garrantzia baserrietako elikaduran

- **Erref:** ESK-002/001
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Gaztainak. Lehenago nahikoa gaztaina janda daude. Gaztaina egosiak, erreak. Inguru egokia gaztainatara joateko. Toponimia. Gaztainadien jabetza.

Transkripzioa

- Harrezkero ez dou jan be ein be...
- Holako gaztaiña apur batzuk ekarten dittue, baiñe nik esaten dotsiet ni nahikue lehen janda naola ta...
- Ez daue ekarten, e.
- [...] nik lehen nauela gaztaiñak janda. Ni ez naz izen gaztaiña zalie. [Bueno]... Ama gurien gizendu... ba, bentaja eitten [...] gizendu letxe eitten zan gaztaiña egosixaz. Gaiñera, erriaz be ez zan gustora gelditten. Hagiñik be ez eban eukiko bihar dan moduan edo ez dakit ze esan be. Behintzat [errian] ekitten zanian ez zan gustora geretan ama. Baiñe...
- Han [...] Arantzazurako bidien badao gaztaiña banaka batzuk?
- Bai, bai...
- Banakak egongo die. Banakak egongo die hor be. Bai, egongo die.
- Oin kazarixak-eta batzen dittue. Kazari ta...
- Basarritarrak ez daukie astirik.
- Ez, ba.
- Danak lanien...
- Bueno, astixa euki, euki... Baiña lehen besteko... apreziau ez da eitten oin. Lehen besterik ez euen ta!
- Gaztaiñak, gaiñera... Gure basue zakarra izeten zan, gaiñera. Honek eta... Honek, osterá, parajeik onen-onenetan gaztaiña batabat baeuan Txarralden. Gaztaiñak sartzen zittuen, ta han, hareaz gaztaiñiaz --iñon terrenuan hartu...-- berak aginketan auen gaztaiñiaz. Batebat baeuen

Txarralden, behintzat, hor. Akordetan naz, Txarraldeko gaztaiñak egoten zien geurien be bai ta leku askotan. Baeuen batenbat aprobetxetan zana eta ha gaztaiñie, iñon terrenuen egonaatik, berak aprobetxetan auen. Berak aprobetxetan auen. Oin ez, oin ez dao hori, baiña orduen behintzat sartzen euenak... [...] ni akordetan naz Txarraldeko gaztaiña... "Haura Txarraldekua dok! Eta bestie be Txarraldekue dok. Eta ha bestie? Ha bestie Arroa(ga)nekue dok". Gaztaiñak iñon terrenuan.

- Bai, bai. Neuk be entzunda dakot hola, e!

- Bai, iñon terrenuan.

- Bai, hola... papeletan, eskritturatan-ta, ba, terrenuen zera eta bi edo hiru gaztaiña halako terrenotan, iñona izanda be.

- Bai, bai... Geurien be, geure terrenuen be bai, ta "Hau? Hau Txarraldekua dok. Bestie? Hori gaztaiñioi Okarantzakua dok. Ta ha bestie...", baiña iñon terrenuan, e, danak! Gehixenak, e! Bueno, noberanien be bai, baiñe kanpo librian batenbat baeuen orduen, ba... behintzet lana ein gura auenak edo aprobetxetan auenak behintzet. Ta gaztaiñek, bai, bai, gaztaiñioi... Urte erdi pasetan gauen gaztaiñak jaten. Urte erdi, e! Gaztaiñak? Afari merkiek eitten zien: gaztaiñie ta saldia eran ta ohera.

35. Abereen zaintza lanak; baserriko lanak. Lehenagoko bizimodua nolakoa; aldaketak

- **Erref:** ESK-002/002
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:02:51. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Abereen zaintza lanak. Lehenago ez ziren abereak horrenbeste zaintzen. Bizimodu gogorra baserrietan. Lan asko baina diru oso gutxi. Oraingo bizimodua, hobe. Laietan.

Transkripzioa

- Behixek be, lehen esan dodana, jare ein, lasto apur bat edo arbixe-edo emun ta hortik ziher [...]. Baiña illunkaran etorten zien ganauek. Ez dakit arbixa jateko edo zeatik, illunkaran etorri eitten zien.

- Bai, bai. Ordua zainttu!

- Bai, baiñe... hor basuen piñurik eta [ezer ez auela...], janda etorten zien, e! Sikue. Baiña errapie be sikua. Ta gero ekin zan jentie ondo gobernau ganauek, eta esnie kalera eruen ta horreik lanok eitten ekin zan gero politto-politto. Baiña aurretik, arbixe ta lastue emuten [jaten] ta soltaten zienien kataietik "echando poñetas" faten zien ganauak basora. Ta eurek etorri eitten zien. [Niri] pentsetan jat haxe arbixe edo lastue jateko intenziñue eukiko euela edo. Bai, errapian, errapian... Txahala ein barrin batek. Lapikun bateaz faten bazan be esne apurren bat batuko [...]. Nik esne... Mutiko-denporan, gaztaiñek; goguan dauket gaztaiñek eta saldie zela jaten gittuen. Esnia jateko amorraketan. Baiña gero ekin zan. Gero ganauek gobernau ta ekin zan jentie kalera esnie saltzen ta holaxe. Lehenauko bizimodue. Esaten da oin be kejak, baiña lehenauko bizimodue... Lehenauko bizimodue be... [lanai heldu bihar jakona zerbait]. Zera, laminaziñoko hautsetan ez, baiña lan asko eitten zan gero baserrixen. Asko lana, asko! Aitte-amak edo ibili ezker, ta mutikuok edo

neskatilla-mutikuok eskolara ta fabrikara, bien. Baiña danak etxien be, zerak, neskatilla-mutikuek be, ta ezebez. Danondako lana ta dirurik, dirurik ez zan iñundik be ikusten. Danondako lana! Neskatilla-mutikuok eta danok lanien, baiña dirurik ezin izaten zan topau. Nik ez dakit nork [jauken]; aberatsak euen gordeta diruoi edo... Hamen diruik ez zan argiketan. Oin be, oin be kejak. Oin be kejak, baiña oingo moduen ez zan lehen orduen [bizitten]. Laixe ta lehen esan dittuun kontuek, laixetan-ta eitten zanien ta...

36. Inguruko erromeria eta feria ezagunak

- **Erref:** ESK-002/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:07:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriak. Feria egunak. Arrasateko feriara behiak saltzera. Feria ezagunak: Arantzazu, Urkiolan. Neska-mutilak dantzan. Soinujoleak.

Transkripzioa

- Orduen be erromerixan bat edo beste be egongo zan, ez? Erromerixak izeten zien orduan, ala?

- Erromerixie?

- Bai, esan gura dot, ba, jai egun batzuk be hartuko ziela tarteka.

- Jai egunetan ez dakit, ba [...].

- Gizonak ferixa egunien.

- A! Gizonak?

- Bai.

- [...] umie gosiek etxien, gizona lelotute etxera.

- Hori da, hori da. Bai, behixe... Behixek... Urte askuen ibili nitzen neu behi bi Mondrauen saltzen nittun --bi, hiru be akordetan naz-- Mondrauen ferixan. Ta esnerik edo ez gauen, orduen ez gauen saltzen.; behixak saltzen gittuen ta ez. Beste zekorren bat-edo [...] ta hortara [...] behixek.

- Orduen faten zan, ba, Arantzazure, Urkiolara, San [Andresenera], ta, ba, San Pedruek edo Andramaixek.

- Bai, ta fiestie gero, fiesta haundixek eitten zien orduan, e! Dantza... Soñue jo ta dantzan, neska-mutillek dantzan. Ta San Migeletan be dantzan --oin San Migeletan be ezebe ez da eitten--; San Migeletan-ta be dantzan, dantzan ganoraz neska-mutillek ibiltten zien. [Ta kanbixau ein euen].

- Ze egoten zan? Akordeoie edo trikitixa edo...?

- Bai, akordeoie.

- Akordeoie?

- Soñujoillie.

- Soñue...

- Beste... Oin harrazkero [argittu die beste...] aldemenekuek-eta [be, honek] soñue joten eben, baiña... San Migeletan, ezebez, baiña San Migeletan dantzan neska-mutillek.

- Urkiolara-ta be dana oiñez fan biheko zan, ez? Urkiolara erromerixara ta dana oiñez?

- Mondraura be bai ferixara, oiñez. Mondraura ferixara oiñez-ta faten giñan. Oiñez. Urkiolara? Baztar guztietara [...] oiñez. Oiñez? Nun ibiliko gitzen, ba? Mondraura... Mondrauen ferixa haundixa eitten zan.

Ganauek... Ganaue asko saldu eta erosi ta ferixa haundixa eitten zan Mondrauen.

37. San Elias ermita eta haren ingurua

- **Erref:** ESK-002/004
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:07:02. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>San Elias ermita. Fraideak diru-batzen... Toponimia, ingurua. Lehen oinez ibiltzen ziren batera eta bestera.</p>

Transkripzioa

- Jaturabek-eta esistiduten dau oin be?
- Bai.
- Ha ermittie-ta haintxe ete dau...?
- Bai, bai. Ha ermittie [...] dauena? San Elias?
- Bai, haxe.
- Bai, han dao. Bai, bai, bai.
- Baiña ez da... Lehenao etorten zan hona batzera [...], bat, San Elias jarten auen.
- Ta hango Ama birjiñekua zera etorten zan batzen? Arantzazuko fraillen bat etorriko zan.
- Diru-batzen edo?
- Ez, garixe edo...
- A! Bueno, bai, bai...
- [...] ordutik behin edo behin egonda nao han, pasauta nao handik. Ta gero, noizbaitten leidu dot zerbait, baiña han ez da biziko oin iñobe.
- Ez, ez ,ez. Ha, bueno...
- Lehen han andra altu-altu bat, alta-alta bat, flaka bat etorten zan, nik uste dot, batzera.
- Bai, Arantzazura, mendixek zera; Aozar(a)tzatik zerera. Zela dia hor goiko etxiok?
- Urrexola.
- Urrexola. Urrexolatik Jaturabera edo [...]...
- [...] ha auzue bistan dao?
- Bai, bai, bai. Gure etxetik pare-parien dao auzue. Bai.
- Hemendik Arantzazura oiñez fateko [...tatik]...
- Han igoten gauen Urrexolara gaiñera, ta gero han trabes-trabes faten gitzen.
- Bide-sailla, e!
- Bueno...
- Ba, Urrexolatik oin esan dozun lekura, handik gora Arantzazura, oiñez. Oiñez. Bai. Oiñez ibiltten zan... Oiñez... Bueno! Nun ibiliko zan, ba?

38. Arrasateko feria; ferien beherakada

- **Erref:** ESK-002/005

- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:10:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Bergarara tratura. Arrasaten feria handia egiten zen 15 egunean behin. Ferien beherakada. Behiak saltzen zituzten ferietan.</p>

Transkripzioa

- Ni behixe saldute nao, ta gurien semiek... Harrazkero ez dakit gehixao behirik saldu nauen. Zenbat urte eukiko ete auen Romanek, hamar urte? [Hemendixe be] eruen ta Bergarara [tratuena] ta behixe [atarateko]. Ni ez naz akordetan kotxerik pasau nauenik. Horreik ez dia milla urtekuek, e! Nire semiek, ba, oin zenbat eukiko dittu? Berrogeta hamar bat?

- Hamaika, hamabi edo... ez dakit zer dauken.

- Ta ha atzetik dotela, behixe Mondrauera hemendixik behera jatxi, kamiñoik kamiño, Bergarara [...]. Ni ez naz akordetan kotxeik... Horreik ez dia milla urtekuak, berrogeta hamar dauka Romanek edo holakon bat dauko. Ta orduen eukiko zittuen, behixen atzetik fateko, hamar urte. Ni ez naz akordetan kotxeik ikusi nauenik. Behixa hartu soka, "danga-danga-danga", Bergarara. Mondrauen... Mondrauen ferixa-lekuen berba ein ta gero etxien tratue ein ta etxetik eruen ta holaxe. Ferixa haundixe eitten zan ta. Geuk orduen epokan ez gauen esne-saltzen eitten. Holaxen behixek saldu ta ardixek eta hortara eitten geuen. [ez gauen epokaik]... geuk. Eskoitzara esne-zaltzen ez gara ibili, ez. Gero horreik ferixok eta danok gastau zien ta hona. Hemen letxero [bat falta zana], Arozteikua edo, ta harei ataraten gotsan, baiña ezebe ez gauen irabazten. Huskerixa bat pagaten auen, ta ezebez. Baiña ferixa haundixak, bueno...! Ferixia? Idixak eta ferixa haundixak [eitten zien] Mondrauen, haundixa ferixie. Idixak be kuadrillie. Honen anaiek-eta, harek idi kuadrillak eukitten zittuen. Oiñez. Hor, [nunbaitzuetan] erosi, Vittorixan edo [nunbaitten]. Oiñez ekarri be aurrien. Gero [arreglau] ondo, ta Mondrauera ferixara. Ba, [ekarri idixek]. [... ta... eitten zan...].

- Hamabostien. Bi astetik eitten zala uste dot.

- Hamabostetik hamabostera. Bai, baiña ya kotxiek eta, ez dakizu? Oin, neuk... zenbat urte dien, ta ya ez auen... ibili be ezin leike ein, dana kotxez tapaute! Danak... ez lekuri iñun ta ezebe. Zelan daon plantaute.

- Geruao ta gehixao gaiñera...

39. Trenbidea, lehenengo autoak noizkoak; bainuetxea eta ikastetxeak

- **Erref:** ESK-002/006
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:10:59. **Bukatu:** 00:15:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Lehenengo autoak; nagusientzat berrikuntza handia. Dilijentziak ez zituzten ezagutu. Aberatsen garraioak. Trenbidea noiz egindakoa den. Bainuetxea. "Bolantea". Maristak. Rekadistak.

Transkripzioa

- Lehenengue nobedadie izengo zan hemen, lehenengo kotxia, e?
- Amak akixen esaten: "Oñez? Zueik kotxien be ibiliko zare, kotxien be". Ta azkenien, hil zanien, bera be kotxien erutie tokau jakon. Bai. Kotxien fan zan bera be. [...] kotxien fan zan, egualdi txarra euen hil zanien ta kotxien fan zan. Baiña ez euen ezautu hak kotxeik, ez auen ezautu. Ta berak esaten [eban]: "Ondion kotxien be igual ibiliko zare". Ta astue egoten zan etxien, baiña kotxia... Oin dana kotxiek!
- Zaldixekin ebalten zienak ezautu zittuein zuek? Zaldixekin ibiltten zien karro edo holako...?
- Dilijentziak edo...?
- Bai, dilijentziak edo lagunak ebalteko horreik, ez?
- Ez.
- Horreik ez zittuein ezautu...
- Klaro, nik [...] leidu dot, uste dot, "en mil novecientos catorce" edo ein zan hau trenau, hau trenbidiau —ointxe denpora asko ez dala leidu dot— eta, ba, ordurarte hemendik Gatzaga gaiñera faten zien holako kotxietan edo; hemendik Gatzaga gaiñera.
- Bai, hor baeuen dilijentzia zerbitzuren bat baeuen...
- Bai, horixe.
- Bueno, hori lehenauko aberatsan zera izengo zan hori; aberatsen kotxiek-eta izengo zien.
- Bai, bai, bai. Baiñuetxera etorteko ta...
- Bai, baiñuetxera atorren jentie-ta ekarteko ta...
- Hemen, hemen bizi zienak be aberatsak zien lehenaukuek, gizon haundixek.
- Hemenguek? Bertakuek?
- Hemen [bizi...] Gaztañadui, gizon haundixek. [...] horrek izena, ta orduan [kamiño...] izena. Hemen aberatsak, gizon... gizon haundixek [...].
- Bai, nik zeoze leiduta badauket. Hemen...
- Klaro, gero [...]
- Jeneralak-eta, gizon haundixek, e!
- Hemen Landetako aittejaune ibiltten zan bolantie. Hemen bestek ez auen bolantie [hain txirrinka] haundixe, Maximo. Ta faten zan harekin Eskoitzara.
- Harek, harek Gaztañako... Harek Gaztañako aberatsak fango zin karruan igual mezetara, e?
- Bueno, Maximo, itxiozu horri.
- Bai, [horixe ez dakit], baiña behintzat hau...
- Eta ha Eskoitzako estaziñotik marianisteta´ faten zan. Pentsaizu zenbat hurrao euen Atxabaltako estaziñue, ezta? Baiña hori beroi, baiñuetxioi, zela Eskoitzako partekue dan, horrakotxe direziñue emongo euen. Ni akordetan naz —ez dakit astien behin edo hillien behin edo— ha zelan Landetako aittejaune hareaz bolantiaz [...] pasetan zan. Bergarako trenien hartzen zittuen gauzak...
- Bai, trenik be ez ta; artien trenik be ez ta ezebez ta...
- ... baiña ordureko bai. Nik... ni txikiñe nitzenien baeuen trena. Ta harek Eskoitzako... hori ... hori... oin [...] leidu dot] nik. Klaro, horra bialketan zittuen ta harek eruaten zittuen marianistetara ekipajok. Bai. Baiña guk bestela ez dou ezautu. Klaro, zeaittik neu veintidoskue naz. Orduen, ni

jaixo baiño sei bat urte lehenau-edo ein zan hau trenbidiau. Baiñe dakit aurrerao faten ziela hemendik Gatzagara jentie; auen hori... kaballuekin edo auen hori.

- Bai, baeuen bai.
- Ta gero beste bat Gatzagakue be faten zan. Ez naz akordetan zela zan.
- Bai, kotxerik-eta ez auen ta...
- Hemendik Elorrixora edo Durangora edo beste bat. Baiñe...
- Karrue, kotxerik-eta ez auen ta, karruekin.
- ... [han] errekadista moduen, ez dakitzu? Baiñe [Bilborako] ez zan egongo. Geruauko gauzak die horrek.

40. Eskoriatzako pertsonai ospetsuak

- **Erref:** ESK-002/007
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:15:04. **Bukatu:** 00:15:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Lehenagoko biztanleak; pertsonai ospetsuak.

41. Herriko pertsonai ospetsuak; aberatsak.

- **Erref:** ESK-002/008
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:15:39. **Bukatu:** 00:19:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Lehenagoko biztanleak, pertsonai ospetsuak, jauntxoak. Palazioa izandakoa. Etxe garrantzitsuak. Gaztañadui abizenaren jatorria. Auzoko baserriak. Baserrirako bidea.

42. Auzoaren antolaketa; baserriak

- **Erref:** ESK-002/009
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:19:29. **Bukatu:** 00:20:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzoko baserriak. Baserrirako bidea.

43. Eskoriatza eta Aretxabaleta bat zireneko kontakizunak

- **Erref:** ESK-002/010
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:20:54. **Bukatu:** 00:21:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Eskoriatza eta Aretxabaleta bat zireneko kontuak. Auzoak, herria. Antzina alkatearen boterea zein izaten zen.

44. Auzoak, baserriak

- **Erref:** ESK-002/011
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:21:52. **Bukatu:** 00:23:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Auzoak, baserriak. Dorretxeak. Baserriaren historia.

45. Auzoko mutilak gau-eskolara joaten ziren

- **Erref:** ESK-002/014
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Gau-eskola. Abadeak ematen zituen klaseak. 12 urtetik gorako mutikoak joaten ziren; zer ikasten zuten. Klaseak euskaraz ematen zituen. Euskara, erdara. Matematika erdaraz. Dotrina ikastea oso garrantzitsua.</p>

46. Neskak ez ziren gau-eskolara joaten

- **Erref:** ESK-002/015
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:29:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Gau-eskolara neskak ez ziren joaten. Auzo guztietan ez zeuden horrelako eskolarik.</p>

47. Gerra garaiko kontuak: bonbardaketak, frontea...

- **Erref:** ESK-002/016
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:29:35. **Bukatu:** 00:32:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerrako kontuak. Hegazkinen kearen pean. Soldadutza Huescan, Teruelen. Gerraren gogortasuna. Gerran zauritutakoa; sendatu zenean, berriz frontera. Somosierra. Etsaien hegazkinak.

48. Gerrara zenbat urterekin joaten ziren

- **Erref:** ESK-002/017
- **Iraupena:** 0:00:10. **Hasi:** 00:32:52. **Bukatu:** 00:33:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Gerrara zenbat urterekin joan zen; zenbat urterekin joaten ziren gazteak. Soldadutza kontuak gaur egun.

49. Gerrako kontuak: Teruelgo ofentsiba

- **Erref:** ESK-002/018
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:33:02. **Bukatu:** 00:34:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bertakoak non ezkutatu ziren. Teruelgo ofentsiba. Hildakoak inguruan.

50. Gerrako kontuak: trintxerak Apetzaga auzoan

- **Erref:** ESK-002/019
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:34:17. **Bukatu:** 00:36:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Trintxerak Apotzaga auzoan. Milizianoek alde egin zuteneko kontakizuna. Babeslekuak; txabolak. Toponimia. Erreketeak, milizianoak.

51. Baserriko bizimodua: erlijioaren garrantzia

- **Erref:** ESK-002/031
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:56:17. **Bukatu:** 00:57:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Baserriko bizimodua. Arrosarioa errezatu eta ohera. Gosea. </p>

52. Baserriko bizimodua: erlijioaren garrantzia

- **Erref:** ESK-002/032
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:57:32. **Bukatu:** 01:00:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Arrosarioa gauean. Eskolan errezatzen. Erlijioa; komunismoa. Erlijioaren indarra; infernua. Sermoiak.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com